Deba
ETORKIZUNA ORAIN

DEBAKO UDALA

# Deba Berri

2021eko MARTXOA 15. zbk.



# Herritarrekin batera Deba erakargarriago egiteko urratsak



GILEN GARCIA BOYRA - DEBAKO ALKATEA

Debaberri 15
2021eko martxoa

## AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| 2. | Udaletxetik |
| 3. | COVID-19 |
| 4. | Geoparkea |
| 5. | Itziarko Auzo Udala |
| 6. | 8 de marzo |
| 7. | 2020aren balantzea |
| 8-9. | Presupuestos 2021 |
| 10-11. | Gobernu Planaren neurriak 2021erako |
| 12-13. | Itziarko hitzarmena |
| 14-15. | Ibon Erraiz Debalaiko presidenteari elkarrizketa |
| 16-17. | Reordenación de aparcamientos |
| 18-19. | Herritarrekin gauzatuko diren proiektuak |
| 20-21. | Laburrak |
| 22-23. | Alderdien iritziak |
| 24. | Ainitze Agirrezabala Iruleak taldeko kideari elkarrizketa |


## ELKARLANAK SORTUTAKO ILUSIOA

Urte aldaketa egin dugu aurreko Debaberritik hona. Urte berria, baina zaharrak berri pentsatuko du askok. Bai, orain dela urtebete inork gutxik pentsa zezakeen halakorik biziko genuenik ezta hain luze joko zuenik ere.

Oraindik ere pandemia betean gaude eta horrek gure egunerokoan hainbat gauza baldintzatzen dizkigu ezbairik gabe, baina ikasten ari gara egoera honetara moldatzen eta ahal den neurrian geure bizitzak ahalik eta “normalen” egiten.

Aurretik esan izan dudan moduan, etorkizunari begira ari gara lanean, proiektuak eta ekimenak sortzen eta gauzatzen. 2021erako esku artean ditugun hainbat proiekturen lanketa dela eta, ilusio handiz ari naiz, zuekin, herritarrekin batera landuko ditugulako.

Aparkalekuen berrantolaketa osatu berri dugu zuen ekarpenekin eta proiektu gehiago ditugu eskuartean elkarrekin gauzatzeko. Orain egun gutxi geurean egon da Bartzelonako Itziar Gonzalez arkitektoa eta parte hartzean aditua, lan hauetan gure iparrorratza izango dena. Eragileak elkarlanerako gogotsu ikusi ditugu. Lehengai ona dugu lanerako eta denon artean proposamen onak egingo ditugu Calbeton Zumardirako, etxebizitza politiketarako edota adosten ditugun beste gaietarako.

## ILUSIONANTE TRABAJO PARTICIPATIVO

Hemos cambiado de año desde la publicación de la anterior Debaberri. Año nuevo, sí, pero más de lo mismo pensarán algunas personas. Sí, hace un año era impensable que fuéramos a vivir algo así y que fuera a alargarse tanto.

Todavía estamos en plena pandemia y eso día a día nos condiciona nuestro día a día, pero estamos aprendiendo a adaptarnos a esta situación y a vivir nuestras vidas lo más "normal" posible.

Como ya he dicho anteriormente, estamos trabajando de cara al futuro, creando y ejecutando proyectos e iniciativas. Permitidme que os diga, que estoy viviendo con mucha ilusión laEstoy muy ilusionado con la elaboración de varios proyectos que tenemos entre manos para 2021, porque los vamos a trabajar con vosotras y vosotros.

Acabamos de completar la reordenación de los aparcamientos con vuestras aportaciones y tenemos más proyectos entre manos para llevarlos a cabo conjuntamente. Hace pocos días ha estado en nuestro pueblo Itziar González, arquitecta y experta en participación de Barcelona, que será nuestra guía en este trabajo. Hemos visto a los agentes con ganas de colaborar. Tenemos buena materia prima para trabajar y entre todos y todas haremos buenas propuestas para la Alameda de Calbetón, para políticas sobre vivienda o cualquier otro tema que acordemos.

Deba
ETORKIZUNA ORAIN

© Argitaratzailea: Debako udala.
Papera: Print birziklatua.
Egilea: SharinF5 Kooperatiba
Azaleko argazkia: Ander Salegi.
Lege Gordailua: L.G. SS-918-2012



# Lehengora itzultzeko zain

**Urtebete da COVID-19a gure artera heldu zela. Urtebete eta maskara, hidrogela, intzidentzia metatua eta beste hainbat kontzeptu gure hiztegian ohiko bihurtu ditugu.**

Aurreko Debaberri argitaratu zenetik hona gertatu denaren laburpena egitea ez da erraza, baina badago kontzeptu bat hilabete hauek deskribatzeko lagungarri dena: aldakortasuna. Gora-behera handiak egon dira hilabete hauetan guztietan. Kutsatuen kopuruak gora egin du mundu osoan eta adituek aipatzen duten zerra-hortzak egon dira une batzuetan.
Txertoan jarrita dute esperantza osasun agintariek. Eusko Jaurlaritzak ezarritako lehentasunen araberako txertatze prozesua ere hasita dago Deban. Hala ere, behin eta berriz aipatzen den moduan, osasun neurriak bere horretan mantendu behar dira, egoerak okerrera egin ez dezan eta behar beharrezkoa da zaintzari erreparatzen jarraitzea, bereziki zaurgarriak diren kolektiboekiko.
Gure eguneroko bizitzako esparru guztietan eragina izaten ari da COVID-19a, eta moldatu ditugu gure errutinak egoera berrira.
Debako Udalak kudeatzen dituen zerbitzu guztiak moldatu dira osasun agintariek ezarritako neurrietara, kiroldegia, Gaztelekua, Eguneko zentroa, liburutegia, udal bulegoak... Hauetan ere, hilabeteotan aldaketak eman dira eta pixkanaka, galdutako hainbat ohitura berreskuratzeko aukera izan da.
Hilabete luzez jarduna erabat aldatuta izan duen Ostolaza Udal Liburutegiak, esaterako, orain aste gutxi berrezarri du ohiko funtzionamendua, egoerak eskatzen dituen hainbat neurri hartuta.

Protocolo en el servicio de la biblioteca Ostolaza Udal Liburutegia:

- El uso de mascarilla es obligatorio.
- Se debe usar el gel hidroalcohólico para la limpieza de manos.
- Se debe mantener la distancia de seguridad.
- Los y las menores de 6 años no podrán quedarse en la biblioteca.
- En caso de querer sentarte comunícaselo a la bibliotecaria.
- Devuelve los préstamos en el buzón.
- Se debe respetar la señalización y las indicaciones del personal.

# Debako Flysch Beltza, geoparkeko zatirik zaharrena





Debako flysch beltzak 6 milioi urte biltzen ditu eta Geoparkeko zatirik zaharrena da. Formazio hau Zumaiakoa baino gutxiago ezagutzen bada ere, puntu oso deigarri batzuk ditu, Aitzandiko tolestura handiak edo Debako noduluak eta septareak, esaterako.

Behe kretazeoan Bretainiatik gertu zegoen Iberiar penintsula poliki-poliki aldentzen hasi zen erlojuaren kontrako errotazio mugimendua eginez eta halaxe sortu zen Bizkaiko golkoa. Mugimendu horrek itsas hondoa pitzatu eta puskatu egin zuen. Iberia eta Europatik zetozen ibaien sedimentuak itsas azpiko arroiletatik behera erortzen ziren arro sakoneratara urez eta hondarrez osaturiko lubizien bidez. Korronteak itsas hondora iristen zirenean turbidita izeneko hondarrezko geruza bat metatzen zuten eta horrela sortu zen lutita beltzez eta hareharriz osaturiko formazio erraldoi hau, Flysch Beltza.

Historia horren ebidentziak erakusten dizkigu gaur egungo Debako paisaiak. Debako itsas pasealekutik hasi eta Aitzandi muturrerainoko bidean gertakari haiek utzitako arrastoak ikus ditzakegu.

Seguru, burua despejatzeko planen bila zabiltzala azkenaldian. Hemen gure proposamena: jantzi zapatilak, deskargatu georuta mugikorrean eta zoaz Lapariko Geoibilbidea egitera. Ibilbidea laburra eta erraza da, Debako itsas pasealekutik abiatzen da, hondartzen ondotik. Mila bider egindako paseoa izango duzu baina ba al zenekien itsas kurkuilu fosila berezi bat dagoela bidean? Ea aurkitzen duzun!




Badaude, gainera, benetan harrigarriak diren beste 6 interesgune, guztiak seinalizatuta ibilbidean. Erreparatu, adibidez, itsas pasealekuko harlauzei, ikusi dituzu inoiz urre koloreko konoak? Ez da baldosaren diseinua fosil bat baizik. Bitxikeriaz beteta dago Flysch Beltzaren paseoa.

Hona gure gomendioa: jaitsi pasealekuaren amaierako eskaileretatik, eta hurbildu arroketara. Begiratu adi-adi arrokei. Ukitu. Bi arroka motaz dago osatua flysch beltza: lutita beltzez eta hareharri horiz. Identifikatzen al dituzu? Hauek ere badute bere istorioa.

Lapariko geoibilbideaz gain, beste bost ibilbide geologiko prestatu ditugu, denak gure webgunean daude eskuragarri. Inguruko ondare naturala eta kulturala ezagutzeko laguntzeko daude eginda. Jarri geologiaren prismatikoak eta gure historiaren parte bat deskubritu!



ITZIARKO AUZO UDALA

# Itziarri dagokion diru guztia jasotzen duten lehen aurrekontuak onartu ditu Auzo Udalak

**Otsailaren 3ko Osoko Bilkuran onartutako milioi euro pasatxoko aurrekontutik ia 300.000 inbertsiotarako bideratuko dira**

2015ean martxan jarri zenetik lehenbiziko aldiz, aurten aplikatu da erakundeari legez dagokion formula osoa aurrekontuen zenbatekoa kalkulatzerako orduan. Honenbestez, 2021 urtean Itziarko Auzo Udalak dagokion diru kantitatea jasoko du Debako Udaletik. Kopuru hau Debako aurrekontu kapituluen zenbatekoaren arabera zehazten da eta hortik finantzatzen da ia osorik auzo udala. Zuzkidura honen kalkulua egiteko aurreko urteetan bi instituzioen artean izan diren irizpide kontrajarriak gainditu egin dira aurten, eta azken hilabeteetan burututako elkarlanak eta bi gobernuen arteko borondateak ahalbidetu dute auzo udalak dagokion kopuru osoa jasotzea.

Arantza Egaña auzo alkateak modu oso positiboan baloratu du nolakoa izan den aurrekontuak adosteko aurtengo prozedura: «goraipatzekoa iruditzen zaigu, izan ere, aurrekontuak urtero eztabaida iturri izan dira, auzo udalari egin beharreko transferentziari murrizketak egin izan zaizkiolako. Aurtengoa prozedura zuzena izan da eta eskaera konkretuak ez dira ezbaian jarri». Adostasun honetan lagungarria izan da hitzarmenaren sinadura eta EH Bilduk, Debarren Ahotsak eta EAJk berau babestu izana: honek elkarlan instituzionalean konfiantza giroa sortu du. Akordio honen ondorio dira inbertsio zuzenetarako edo udal teknikarien dedikazioari lotutako Debako Udalaren konpromisoak.

## 287.938€ BIDERATUKO DIRA INBERTSIOETARA

Itziarko Auzo Udalak martxan daukan programa garatzea da helburua, aurreikusita dauden inbertsioak pixkanaka gauzatuz. Aurrekontuaren %26,4 bideratuko da inbertsio hauetara, 287.938€ guztira. IAUk dituen eskumenak azpiegitura eta landa garapenarekin oso lotuta daudenez, inbertsio hauetako gehienak oinarrizko azpiegitura berrietara eta pandemiak sortu dituen beharrizanei lehentasuna ematera daude bideratuta, hala nola, plazako aterpea berreskuratzera eskola umeentzat (20.000€). Zerrenda honetan dauden gainerako diru-partida esanguratsuenak Itziarko sarrera asfaltatzea (40.000€), Lasturko gas hornidura berria (20.000€), markesina berriak (20.000€), buzoien aldaketa (5.000€) edo argiteria publikoa berritzearena (10.000€) dira. Honekin batera, azken urteetan egindako lanari segida emanda, baserri bideen konponketan jarraituko da. Alor honetan aurreikusten den inbertsiorik esanguratsuena Antsorregi-Arriola bidearen lehen erdia izango da (40.000€).

Inbertsio hauez gain, gastuei dagokienean, zaborren kudeaketa da gaur gaurkoz diru gehien eskatzen duen kontusaila, aurrekontu osoaren %37,6 honetara bideratzen baita (410.000€). Transferentzien alorrean, herriko elkarte eta hitzarmena sinatuta dugun erakundeetara (Gurutze Gorria, Debemen) 95.000€ zuzenduko dira. Honen baitan gorde da banda zabala baserri eremuetan instalatzeko dirulaguntza kofinantziatzeko diru-partida, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatzen denerako.

# El Ayuntamiento ha publicado una guía de libros y audiovisuales no sexistas para personas adultas

**2021eko martxoaren 8a, azken hilabeteotako ekimenak bezala, pandemiak baldintzatuta igaro da. Formatua aldatuta ere, aldarrikapenik ez da falta izan. Bi esparrutik heldu dio Emakumeen Nazioarteko egunari Debako Udalak, berdintasunaren zehar lerroa aldarrikatuz eta egunero landu beharra mahai gainean jarriz. Bestetik, edukizko ekarpena egiten.**

En la presentación de esta nueva publicación que acaba de repartirse en todos los domicilios, la concejala de políticas feministas hizo hincapié en el tema de los cuidados, que ha sido tema principal este 8 de marzo. "Esta crisis sanitaria, que posteriormente se ha convertido también en una crisis económica y social, ha puesto de manifiesto situaciones como la de las personas más vulnerables, o las carencias que tenemos como sociedad en materia de cuidados".

Estibaliz Beltrán de Heredia, responsable de la biblioteca municipal Ostolaza de Deba, ha explicado que la 'Guía de libros y audiovisuales no sexistas para personas adultas' "es la continuación del trabajo iniciado hace 3 años". Entonces se elaboró y se publicó una guía dirigida a menores.

El objetivo es dar a conocer a la ciudadanía los libros y audiovisuales no sexistas existentes en la biblioteca. Porque es importante que la ciudadanía tome conciencia sobre la igualdad y una de las vías para ello es conocer y leer libros con contenido no sexista.

La guía está dividida en varios apartados, según ha explicado Beltrán de Heredia: feminismo, colección Lisipe, novelas y poesía, cómics, biografías, audiovisuales organizados desde los más recientes hasta los más antiguos.

Es un trabajo conjunto del área de Igualdad del Ayuntamiento y la biblioteca municipal. Se ha repartido a domicilio. "Un año más, a pesar de la inusual situación, hemos completado, en la medida de lo posible, un nutrido programa para el 8 de marzo", explicó Yoana Azpitarte técnica de igualdad en el ayuntamiento.

A parte de la programación que realiza el movimiento feminista el 8 de marzo, el ayuntamiento ha organizado entre el 12 y el 21 de marzo cuentacuentos dirigidos al público infantil, charlas y proyección de películas, entre otros.

**"Helburua herritarrei liburutegian dauden liburu zein ikus-entzunezko ez sexisten berri ematea da."**



*Itziar Irizar politika feministen zinegotziak, Yoana Azpitarte Udaleko berdintasun teknikariak eta Estibaliz Beltran de Heredia, Ostolaza udal liburutegiko arduradunak aurkeztu zuten gida.*



# Ez-ohiko urteari erantzuteaz bat aurreikusitako lanak egin ditu Udal Gobernuak 2020an

**Egoera zaurgarrian zeuden pertsonak eta pandemiak ekonomikoki gehien kaltetu dituen sektoreak laguntzera bideratu zen Udalaren lana martxotik aurrera. "Ez baitugu nahi inor atzean utziko duen herririk", alkatearen esanetan.**

*El Ayuntamiento ha apostado por mantener la oferta cultural en la medida de lo posible, como el concurso de arte de calle de septiembre. Foto: A. Salegi.*

Ildo horretan egindakoetako batzuk aipatzearren: boluntarioz osatutako zaintza sarea bultzatu eta koordinatu zen Itziarko Auzo Udalarekin eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean pandemiaren lehen hilabeteetan; pertsona etxegabeentzat erromesen aterpetxea zabaldu zen; elikadura bankurako elikagaiak lortu eta kudeaketa bideratu zen Caritasekin elkarlanean; uda sasoian egoera zaurgarrian zeuden haur eta gazteei zuzendutako hezkuntza-zaintza sarea sortu zen...

Malgutu ziren zergen kobrantzak herritarren egoera ekonomikoa arintze aldera. Bestetik, pandemiak bereziki kaltetu dituen ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreak laguntzeko hainbat neurri hartu ziren. Besteak beste, tasa eta zergak murriztu, bertako merkataritza sustatzeko erosketa bonoen kanpainak egin dira...

Aurreikusita zeuden bestelako lanak ere egin dira, herriarentzat garrantzitsuak direnak. Besteak beste, Amillagako proiektuaren aldaketa onartu da eta Errementari-Mogel martxan jarri da.

Udalaren jarduna eraginkortzeko, eta aurretik hartutako konpromisoak betez, II. Berdintasun Plana onartu da; ordenantza fiskalak eguneratu ditugu; lanpostuen zerrenda landu da.

Bestetik, agroekologiaren aldeko herrien sarean sartu da Deba 2020an. Merkataritza biziberritzeko plana egin da eta bideen ordenantza berritu eta onartu da.

"Egoerak ahalbidetu duen neurrian, kultura eta kirolaren aldeko apustuari eutsi diogu, herri bizia nahi dugulako, herri sortzailea. Kulturarik gabeko herrian ez dugulako sinisten", esan du alkateak. Ildo horretan aipatzekoak dira udako kontzertuak, Iturri ondoan, Tene Mujika beka, kale margo lehiaketa...

Aurreikus daitekeenez, 2021a ere ez da erabat ohikoa izango. Hori horrela, zaintzeko deia berretsi nahi die Udalak herritarrei.

"2020 ha sido un año especial. Porque a partir de marzo la crisis sanitaria ha repercutido en todo. La que comenzó hace un año como crisis sanitaria, se ha convertido también en política, económica y social con el paso de los meses. Esta situación nos ha obligado a hacer cambios en las prioridades y nos hemos centrado especialmente en los cuidados. Hemos sabido adaptarnos sin olvidar las previsiones. El balance es positivo", en palabras del concejal de cultura y servicios sociales Aritz Larrañaga.

*Se ha guardado una partida para las fiestas en caso de que puedan celebrarse y en caso de no ser posible poder destinar el dinero a cubrir otras necesidades.*



# Egungo erronkari aurre egingo dion aurrekontua izango da 2021ekoa

**Dos conceptos pueden definir los presupuestos para 2021 aprobados en el pleno ordinario del 28 de enero: ser unos presupuestos realizados en colaboración y que estén pensados para afrontar la situación actual. Deba contará con un presupuesto consolidado de 9.066.529 euros.**

Itziar Irizar Ogasuneko zinegotziaren esanetan “2020rako aurrekontuak moldatzerakoan COVID-19ak ekarri duen ezohiko egoera kontuan izan genuen, eta 2021erako ere zuhurtziaz jokatzea dagokigula uste dugu, Udala kudeatzearen ardura dugun heinean”.

Udazkenean abiatutako lanketak hainbat oinarri izan ditu: batetik, pandemiak sortutako egoera aintzat hartzea; Gobernu Plana bide-orri edo oinarri nagusi hartzea eta neurriak gauzatzen joatea; Gizarte Politiketako eta Berdintasuneko batzordeak indartzea; euskara sustatzen jarraitu, eta kultura eta kirol jarduerak, ahal diren neurrian, berreskuratzea; ingurumenean eragina duten ekintzak aurreikustea; 2020an landutako merkataritza berrindartzeko plana aintzat hartzea eta udalerria hobetuko duten proiektuak edota inbertsioak aurreikustea.

“Egungo errealitatetik abiatuta, 2021eko aurrekontuak herritarron bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko asmoz osatu ditugu. Elkarlanean aurrekontu orekatua eta sendoa osatu dugula uste dugu, egungo erronkari aurre egingo diona”, Gilen Garcia alkateak esan duenez.

Batetik, **Gizarte Politikei** dagokionez, adinekoen prebentzioa eta eurei zuzendutako zerbitzuak indartzea (zahartzaro aktiboa lantzeko jarduerak bultzatuz), herritar zaurgarrienei diru-laguntzak ematen jarraitzea eta indartzea (gizarte larrialdi eta bakarkako laguntzak, elikagai bankua...), haur eta gaztetxoentzat Zaintza Sarea eta Hezkuntza Errefortzua



## HAINBAT DATU

Debako Udalaren aurrekontu osoa: **9.066.529€**

Udaleko aurrekontua: 8.804.385€

Itziarko Auzo Udala: 1.090.562€

Deba Musikal Patronatua: 586.402€

Udalaren kasuan 850.000€ aurreikusi da inbertsioetarako, horietatik esanguratsuenak honakoak izango dira:

- Luzaro eskolako aterpea eraikitzea (150.000€)
- Artzabalgo espaloia (170.000€ + GFA)
- San Roke eta Santa Katalinako bideak (100.000€)
- Arrantzale kalea atontzea (26.000€)
- Gaztelekuko leihoak (23.500€), Errotazar LED argiak (50.000€)
- Padel pistak (120.000€ - DAren ekarpena)
- Haurreskolako pertsiana (3.000€)
- Aldats frontoiko sarea (6.000€), webgunea berritzea (6.000€)
- Calbeton zumardiko fatxada (100.000€ - %15)

antolatzea, etxebizitza alokairua bultzatzeko diru-laguntzak martxan jartzea (DAren ekarpena), Aniztasun Plana garatzea (herri inklusiboagoa egiteko asmoz), adinekoen zentroaren beharrari buruzko azterketa egitea (EAJren ekarpena)...

**Berdintasuna eta Parte-Hartzea**ri dagokionez, 2020an onartutako II. Berdintasun Planean bildutako ekintzak gauzatzen hastea. Formazioak antolatzea, helduentzako gida morea argitaratzea... Gainera, etxebizitzaren inguruko galdeketa, Zumardiari buruzko parte-hartze prozesua eta auzokako bilkurak ere martxan jartzea aurreikusi da.

**Tokiko Garapena**ri dagokionez, merkatua indartzea, San Roke eta Santa Katalinako bideak konpondu eta Artzabalgo espaloia egitea, bertako merkataritza sustatzeko ekintzak gauzatzea, natur bideak balioan jartzea, eraikin publikoen ziurtagiri energetikoa egitea, aldaketa klimatikora egokitzeko ekintza plana osatzea, hezkuntza eta kirol instalazioetan hobekuntza egiten jarraitzea (Luzaro eskolako aterpea, Haur eskolako pertsiana, Errotazarren LED argiak instalatzea)...

**Udal Antolaketa**ri dagokionez, aparkalekuen berrantolaketa landu eta martxan jartzea, argiteria publikoa eguneratzen hastea, hainbat ordenantza/hitzarmen/zerbitzu kontratazio eguneratzea, webgunea berritzea, desfibriladore-gune berriak sortzea, fitxatze sistema ezartzea, ... eta baita gainontzeko alderdiekin, IAUrekin edota Itziarko enpresa parkearekin, eta udalerriaz gaindiko instituzioekin elkarlanean jarraitzea ere.

Kultura eta Herri Ondareari dagokionez, euskarari bultzada ematen jarraitzea. Gainera, kultur jarduerak indartu (egoerak ahalbidetzen duen neurrian) eta Karsta eta Gizakia aurre-historiari buruzko proiektua martxan jartzea aurreikusi da. Festa izaera duten jarduerentzat (Debarren Eguna, San Juanak, San Rokeak, Euskal Jaia...) diru-poltsa bat sortu da, pandemiak sortutako egoera dela eta oraingoz zein ekintza/ikuskizun antolatu daitezkeen aurreikusi ezin delako.




# 2021ean Gobernu Planean jasotako 30 neurri lantzeko konpromisoa hartu du Udal Gobernuak

**2019-2023 legealdirako osatutako Gobernu Planak 100 neurri biltzen ditu. Horietatik 30 aukeratu ditu Udal Gobernuak 2021erako, Gobernu Plana osatzen duten 5 ardatzak oinarri hartuta, arlo bakoitzetik batzuk hautatuz. 2020an 35 neurriz osatutako sorta landu zuen.**

Lehen ardatza Udal Antolaketari dagokiona da, bertatik esanguratsuenak Udaltzain burua aukeratzeko hautaketa prozesua gauzatzea, Alde Zaharreko trafikoa erregularizatu eta aparkalekuak berrantolatzea, udal eraikinen eraginkortasun energetikorako plana egitea eta hainbat ordenantza eguneratzea izango dira.

Gizarte Zerbitzuen ardatzetik, berriz, Aniztasun Plana garatzea, kooperazio taldeei diru-laguntzak ematen jarraitzea, herritarrei Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa helaraztea, Gaztelekuan hainbat mantentze lan egitea eta etxebizitza alokairua bultzatzeko diru-laguntzak martxan jartzea.

Hirugarren ardatzetik, Tokiko Garapenetik, baserri bideak konpondu eta natur bideak balioan jartzea, hezkuntza eta kirol instalazioetan hobekuntzak egiten jarraitzea, bertako merkataritza sustatzea eta Eusko Trenbide Sarearekin elkarlanean jarraitzea.

Kultura eta Herri Ondarean, kultur jarduerak berreskuratzeko ahalegina egiteaz gain, herriko elkarteen gida sortu eta EPA eraikinaren erabilera aztertuko dira. Eta, azkenik, Berdintasuna eta Parte-Hartzea ataletik aldarrikapen egunak babestu eta lantzen jarraituko da, eta parte-hartze prozesuak martxan jarriko dira.

## ORGANIZACIÓN MUNICIPAL




**4.** Ejecutar el procedimiento de selección de Jefe/a de Policía Municipal.



**10.** Instalar nuevos desfibriladores y organizar cursillos.





11. Actualizar el alumbrado municipal.

12. Regularizar el tráfico del casco histórico.



13. Reordenar las zonas de parking.

15. Elaborar el plan de eficiencia energética de los edificios municipales.

18. Reorganizar la web.

21. Elaborar la ordenanza para regular la transformación de locales en vivienda

## POLÍTICAS SOCIALES

29. Aumentar la seguridad de las viviendas y la autonomía de las personas mayores.

32. Hacer de Deba un municipio más inclusivo.

33. Diseñar el protocolo de acogida “Ongi etorri Deba-Itziarrera”.




34. Reforzar la colaboración con SOS Arrazakeria.

35. Seguir ofreciendo subvenciones a las asociaciones de cooperación locales.



36. Informar a la ciudadanía sobre los Servicios Sociales existentes.



40. Ejecutar las obras de mantenimiento del Gazteleku.

41. Estudiar la posibilidad de ayudas económicas para promover el alquiler.

## DESARROLLO LOCAL



48. Profundizar en la reparación de vías rurales.

51. Mejorar y acondicionar las instalaciones deportivas.

52. Ejecutar las obras de acondicionamiento en los edificios públicos educativos.

53. Poner en valor los caminos rurales y las rutas verdes.

55. Promocionar el comercio local.

57. Impulsar la colaboración con Eusko Trenbide Sarea.

## CULTURA Y PATRIMONIO PÚBLICO

81. Crear una guía de las asociaciones locales.

82. Estudiar el uso de los edificios de EPA y de la Arte Eskola.

## IGUALDAD Y PARTICIPACIÓN

89. Apoyar y trabajar fechas reivindicativas relacionadas con la Igualdad.

90. Poner en marcha procesos participativos.

91. Cumplimentar un cuestionario y recabar aportaciones.

94. Poner en marcha dinámicas para realizar reuniones participativas en los barrios.

98. Identificar los puntos negros del municipio y elaborar un diagnóstico.

100. Valorar el Plan de Gobierno a lo largo de la legislatura y al final de la misma.



# Aro berri bati hasiera eman diote Debako Udalak eta Itziarko Auzo Udalak

**Con el convenio firmado el 18 de diciembre de 2020 en la Casa del Concejo de Itziar se ha puesto una base sólida para la colaboración de cara al futuro. El alcalde de Deba, Gilen Garcia, y la alcaldesa pedánea de Itziar, Arantza Egaña, han firmado el convenio en nombre de ambas instituciones. Unos días antes las corporaciones de ambas instituciones aprobaron el convenio por unanimidad. Este día marca el comienzo de una nueva era en las relaciones entre el Ayuntamiento de Deba e Itziarko Auzo Udala.**

Gaur egungo osasun egoeragatik, ezin izan da gertakariak eskatzen duen mailako ospakizunik egin. Hau horrela, Debako udalbatzako EH Bilduko eta EAJ-PNVko ordezkariak eta Itziarko juntakideek parte hartu zuten ekitaldian, Eider Mendoza Gipuzkoako Gobernantza Diputatua eta Bozeramalearekin batera.

Itziarren tokiko entitate deszentralizatua eratzeak, badakar zuzenean lan batzuk kudeatzea. Besteak beste, hirigunearen-mantentzea: bideak, bide publikoak, plazak, parkeak, berdeguneak eta hiri-altzariak administratzea eta kontserbatzea. Edota erabilera publikoko higiezinak, instalazioak eta azpiegiturak administratzea, mantentzea, garbitzea eta gordetzea. Hala, Landa- eta mendi-garapenari dagokionez, landa-bideak, etxeetara eta baserrietara iristeko bideak eta mendiko bide publikoak zaintzeko eta mantentzeko lanak ere berari dagozkio, nola kaleak garbitzea. Argiteria publikoa, hilerri-zerbitzua, hondakinen bilketa (industrialdea barne), edota jaiak eta muntaketak, kultura, euskara eta aisialdia sustatzeko eta dinamizatzeko zerbitzuak eta ordena publikoa eta herritarren segurtasuna.

Debako Udalak, bere aldetik, egitura administratiboa osatuko eta egonkortuko du sinatu berri den hitzarmenari jarraiki. Horretarako udal teknikarien lan-jardunaren parte bat esleituko du Itziarren dauden beharrei erantzuteko. Modu honetan, modu zuzenagoan eta bertatik bertara erantzungo zaizkie Itziarko herritarren beharrei.

Gilen Garcia alkatearen iritziz, “Udal Gobernuaren lana ongizatea eta proiektu berriak garatzea baldin bada ere, atzetik datozen gatazka edo arazoak konpontzea ere bada gure lanetako bat eta zentzu horretan uste dugu hitzarmen hau sinatu izanak esan nahi duela gobernantza eredu berri batera goazela, eta hori alderdi guztien elkarlanetik abiatu denez, oso eskertzekoa da azken urtean egon den jarrera eraikitzailea parte guztietatik eta guztiak zoriondu nahi ditut”.





2015eko otsailaren 27an eratu zen Itziarko Auzo Udala. Itziarko bizilagunen autogobernurako nahi historikoa bideratzea izan zen auzo udala eratzearen arrazoi nagusia, honek zerbitzuen hobekuntza eta auzoetako beharrak errazago identifikatzeko aukera ekarriko zuelako, betiere Debako udalerriaren interes orokorrak kaltetu gabe. Hori horrela izango delakoan daude bi instituzioetako ordezkariak. Guztiek nabarmendu dute akordiorako eta elkarlanerako egon den borondatea.

Arantza Egaña Itziarko auzo alkatearen esanetan, “gure helburua beti izan da Itziarko herritarrek izan ditzaten ahalik eta zerbitzurik onenak eta hitzarmen honen helburua ere hori da. Uste dugu, baita ere, beste zenbait udalerriei begira ere eredugarria izan daitekeen hitzarmena dela hau.”

Hitzarmenean, bi erakundeen arteko lankidetza eta bakoitzari dagozkion eskumenak zehazten dira.

**Bi udalbatzek aho batez onartu zuten abenduaren 18an sinatu zen hitzarmena. Ekitaldian adierazpena ere irakurri zuten bi udalbatzen izenean: Gilen Garciak, Debako alkateak; Arantza Egañak, Itziarko auzo alkateak; Itziar Irizarrek, EH Bilduko ordezkariak; Iñigo Cambronerok, EAJ-PNVko ordezkariak eta Maider Lopetegik, Itziarko juntakideak.**









*Argazkiak: A. Salegi*

# “Debalain oso pozik eta eskertuta gaude herriaren erantzunarekin”

**En plena pandemia sanitaria, hablamos con Ibon Erraiz Fernández (Bilbo, 1976), presidente de Debalai, asociación que aglutina a un total de 36 establecimientos hosteleros y comerciales de índole muy diversa. Representa, por lo tanto, a uno de los sectores especialmente afectados por esta situación sanitaria. Fundada ya hace once años y desde el convencimiento de que la unión hace la fuerza, se marcan como objetivos impulsar el comercio local y acoger en la asociación a más establecimientos. Valora de forma positiva las campañas de bonos para impulsar el comercio local y se muestra muy agradecido con la respuesta de la ciudadanía. Aprovecha estas líneas para dar ánimos a todas las personas del sector que lo están pasando mal, y en especial al  de la hostelería.**



**Ibon Erraiz Fernandez (Bilbo, 1976)**

**Debalaiko presidentea**

**Nola bizitzen ari zarete egungo egoera?**

Egoera honek egunean bizitzera behartu gaitu. Hau hasi zenean, gogoan dut udaberriko outlet-a prestatzen ari ginela. Aste berean establezimenduak itxi behar izan genituen -lehentasunezkoak izan ezik- bi hilabetez. Une hartan pentsatu ere ez genuen egiten hau hain luzea izango zenik. 2021eko urtarrila izan da, ziurrenik, hilabeterik gogorrena, berriz ere ezjakintasuna gailendu delako. Deba eremu gorrian egon zen egunetan ostalaritzak itxi egin behar izan zuen eta ez genekien gainontzeko establezimenduekin zer gertatuko zen. Gabonen ostean, gainera, osasun egoerak okerrera egin zuen. Urtarrileko egun motz eta euritsuak nahiko gogorrak izan dira denontzat.

**Egoera honetan nabaritu da jendeak gehiago kontsumitzen duela herrian?**

Bai. Elkartean oso pozik eta eskertuta gaude herriaren erantzunarekin. Deba bada kanpotik jende asko hartzen duen herri bat eta horiek erosketak ere egiten dituzte bertan. Orain, hilabete asko pasa ditugu Debako jendearekin bakarrik eta egia esan herritarren erantzuna oso ona izan da.

**Debako Udalak merkataritza-bonoen bi kanpaina egin ditu. Nola baloratzen dituzue?**

Esan bezala jendearen jarrera oso ona izan da eta momentu batzuetan hunkigarria ere bai. Kuttunako iniziatiba martxan jarri zenean, dendak itxita zeudela bonoak erosteko aukera eman zenean, Debako jendeak oso jarrera ona izan zuen. Gogoratzen dut bonoen garaian, merkatari batekin horri buruz hitz egin nuela hark zalantza zuelako parte hartu edo ez. Egia da lana suposatzen digula, baina ekimenean sartu eta asko hunkitu zuen jendeak izan zuen jarrerak. Debarrei eskerrak eman behar dizkiegu. Horrelako ekimenek beti suspertzen dute ekonomia eta jendea animatzen da horrela. Horrelako gehiago egitea behar dugu.

**Osasun krisia deklaratu baino egun batzuk lehenago Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia egiten hasia zen Udala, besteak beste, Debalairen parte hartzearekin.**

Lehen aipatu bezala, udaberriko kanpaina prestatzen ari ginen momentu berean honekin ere hasita geunden, bai. Plangintza egiteko momentuan ginen eta egoera berrira moldatuta ere,  aurrera egin genuen. Beharrezkoa ikusten genuen hainbat neurri hartzea pandemia aurretik ere, baina orain are gehiago. Herriak bizirik egon daitezen bertako komertzioak zein garrantzia duen nabarmen geratu da orain agerian.

**Aparkalekuen berrantolaketa prestatzen ari da Udala. Bertako merkataritza sustatzea ere bada tartean dagoen helburuetako bat eta bertan parte hartu duzue.**

Bai, hori ere garrantzitsua da. Aparkalekuenak eragiten du merkataritzan eta kontsumo-ohituretan, horregatik da garrantzitsua gai hauek ere gurekin partekatzea.



**Pandemia garai honetan, internet bidezko erosketek gora egin dute eta komertzio txikiaren digitalizaziorako beharra agerian geratu da, bereziki lehen hilabeteetan.**

Debalaik, elkarte bezala hor lan bat egiten du, bere sare sozialen bitartez. Denda bakoitzaren eskaintzaren berri-eta ematen da. Askotan ateratzen dira planak eta ateratzen dira web orriak dendentzat, baina internet oso handia da eta denda txikiak hor galduta geratzen dira. Hor gertuko komertzioaren lekua topatu behar da. Elkarteko batzuk ari dira horretan eta hori indartu nahiko genuke. Uste dugu horretarako herriko eskaintza bateratua jasoko duen aplikazio bat egitea interesgarria izan daitekeela, herrian bertan dauden aukerak ikusgai jartzeko.

**Horrek eskatzen du, ez bakarrik erosleak, merkatariak ere prestatuta egotea teknologia horiek erabiltzeko.**

Hori hala da, bai. Gertatzen dena da, beste arloetan bezala, merkatarien artean ere badaudela batzuk errazago mugitzen direnak egoera horietan beste batzuk baino, adin kontuagatik edo beste arrazoi batzuengatik. Uste dugu inbertitu behar dela formazioan eta jendeari bidea erraztu behar zaiola, beldurra kendu.

“Se ha dado un gran avance en la conciencia de las personas, porque muchas han comprendido que no es lo mismo comprar en Amazon que en el comercio local”

“Hemos conocido el tipo de pueblo que sería Deba sin el pequeño comercio y no nos ha gustado”

“No tenemos más que palabras de agradecimiento para la ciudadanía de Deba”

**Zer egin daiteke bertako merkataritza bultzatzeko?**

Garrantzitsua da plan integral bat, orokorra egotea, PERCOa bezala (Merkataritza Indarberritzeko Plan Berezia), eragile desberdinen artean landutakoa. Aurrera pauso handia eman da jendearen kontzientzian, jende askok ulertu duelako orain, ez dela gauza bera Amazonen erostea edo herriko dendan erostea. Bakoitzak erabakitzen duenean bere dirua non gastatu, horrek eragin bat duela ohartu da orain jende asko. Debako establezimenduak itxita egon direnean ikusi da nolako herria izango litzatekeen komertziorik gabe. Eta aukera izan dugu ikusteko hori den nahi duguna edo beste zerbait nahi dugun. Egoera zail honetako gauza txar guztien artean gauza positibo bat da kontzientzia hartze hori. Ikusi ahal izan dugu nolakoa izango litzatekeen herria denda txiki gabe eta ez zaigu gustatu.




# Se reordenan los aparcamientos del municipio

**2021eko maiatzaren 1ean TAO zerbitzuaren denboraldi berria hasiko da. Maiatzaren 1etik 31ra bitartean asteburu eta jai egunetan soilik, eta ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean egunero, 6. sektorean izan ezik. Azken hau maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartean egunero egongo da indarrean.**

Abenduaren 22tik urtarrilaren 15era bitartean gai honi buruzko herritarren ekarpenak jaso ditu Debako Udalak, guztira 88 (47 emailez eta 41 paperean), eta hauek ere kontuan izanik diseinatu du 2021erako aparkalekuen antolaketa. Lanketa honen bitartez, bertakoei lehentasuna emango zaie, Alde Zaharreko trafikoa erregularizatuko da, ibilgailuen errotazioa bermatuko da, herri-gunean bizi ez diren herritarrek enkarguak egiteko bertatik gertu aparkatzeko leku gehiago izango dute, eta zerbitzuari bizitasuna emango zaio.

## OTROS:

**Tarjeta residente:**
Podrán obtenerla las personas que tengan el vehículo empadronado en el Ayuntamiento de Deba. Podrán estacionar:

- Sector 1: gratis, máximo 30 minutos, con ticket.
- Sector 2: en la zona de residentes sin límite de tiempo (como hasta ahora) y en la zona de alta rotación, gratuitamente pero con ticket, máximo de 2 horas; y de 18:00 a 9:00 horas sin ticket y sin límite de tiempo.
- Sector 3: todo el día por 2,25€ y de 18:00 a 9:00 gratis y sin límite de tiempo.
- Sector 4: gratis y sin límite de tiempo.
- Sector 5: gratis y sin límite de tiempo.
- Sector 6: gratis y sin límite de tiempo.
- Patios escuela: gratis y sin límite de tiempo.

**Tarjeta veraneante:**
Se podrá obtener por 50€, una por vivienda. Podrán aparcar:

- Sector 1: gratis, máximo 30 minutos, con ticket.
- Sector 2: en la zona de alta rotación,

# CON LAS APORTACIONES DE LA CIUDADANÍA SE MODIFICA LA PRIMERA PROPUESTA CON EL SIGUIENTE RESULTADO:

**Sector 1: Gudari plaza (todo el año).** El objetivo de esta zona es garantizar un estacionamiento de alta rotación que permita a la ciudadanía realizar encargos rápidos. Esta zona se mantendrá como hasta ahora, con una duración máxima de 30 minutos, pero el ticket será obligatorio.

**Sector 2: parking antigua estación (todo el año).** Se diferenciarán dos zonas, por un lado, la zona sin límite de tiempo para residentes (40 plazas, fila del lado de las vías) y, por otro, la zona de alta rotación (53 plazas, 2 filas del centro y fila del lado de la alameda). El objetivo de esta última es que los vecinos y vecinas que no residan en el Casco Viejo puedan aparcar cerca de la zona de comercios.
En la zona de alta rotación se permitirá un máximo de 2 horas de estacionamiento para todos los usuarios y usuarias durante todo el año, con ticket. Será gratuito tanto para residentes como para veraneantes, pudiendo estacionar de 18:00 a 9:00 horas sin tickets ni limitación de tiempo.

**Sector 3: Nafarroa plaza.** Como hasta ahora, la Plaza Nafarroa será gratuita en invierno y en la temporada OTA (del 1 al 31 de mayo fines de semana y festivos, y del 1 de junio al 30 de septiembre todos los días) se permitirá un máximo de 5 horas de estacionamiento, pero residentes y veraneantes podrán estacionar durante todo el día por 2,25€ y de 18:00 a 9:00 horas de manera gratuita. Además, las autocaravanas y caravanas estarán prohibidas durante la temporada de OTA y los camiones durante todo el año.

**Sector 4:** la zona azul-roja (Bastiñuixa, Montreal, Markiegi, Marinel y alameda Calbetón), como hasta ahora, en invierno será gratuito y sin límite de tiempo. Durante la temporada de OTA (del 1 al 31 de mayo los fines de semana y festivos, y del 1 de junio al 30 de septiembre todos los días), se autorizará un máximo de 5 horas de estacionamiento; con posibilidad de aparcamiento gratuito para residentes y veraneantes, sin límite de tiempo. Además, las autocaravanas y caravanas estarán prohibidas durante la temporada OTA y los camiones durante todo el año.

**Sector 5: parking Artzabal (del 1 de junio al 30 de septiembre).** Como hasta ahora, en invierno será gratuito para todos los usuarios y usuarias. Durante la temporada de la OTA, se permitirá el estacionamiento gratuito para residentes y veraneantes por tiempo indefinido. Para el resto se autorizará un estacionamiento de media jornada o día completo, y para las autocaravanas de día completo (máximo 72 horas). El estacionamiento de caravanas estará prohibido durante todo el año.

**Sector 6: Zona urbana (del 1 de mayo al 30 de septiembre).** En esta zona sólo se permitirá el estacionamiento de vehículos que dispongan de la tarjeta “residente” (o equivalente) durante todo el día, sin límite de tiempo y de forma gratuita.
La zona de residentes estará formada por las calles Angulero, Astillero, Maxpe, Agirretxe, Mogel, Elizburu, Itziar bidea, Latzurregi, San Josepe, Osio, Ifar kale, Itsas-Begi, Hondartza y Marinel kalea. En el caso de la calle Hondartza, la zona del cementerio y los aparcamientos de Miramar, y en el caso de la calle Marinel los aparcamientos entre la ría y el puerto.
Además, durante los meses de julio y agosto, en los patios escolares sólo se permitirá estacionar residentes y veraneantes, durante todo el día y de forma gratuita, sin límite de tiempo.

**Sector 7: Casco Viejo (todo el año).** Con el fin de potenciar la zona peatonal, durante todo el año, sólo podrán acceder a ella los vehículos autorizados para las labores de carga y descarga. Los/as ciudadanos/as autorizados/as por razones de movilidad o accesibilidad deberán solicitar autorización en la Policía Municipal, así como aquellos/as que lo precisen en circunstancias especiales, puntualmente.
El horario será de lunes a viernes de 8:00 a 13:00 y sábados de 8:00 a 12:00. Los domingos y festivos permanecerá cerrado.

gratuitamente pero con ticket, máximo de 2 horas; y de 18:00 a 9:00 horas sin ticket y sin límite de tiempo.

- Sector 3: todo el día por 2,25€ y de 18:00 a 9:00 gratis y sin límite de tiempo.
- Sector 4: gratis, sin límite de tiempo
- Sector 5: gratis, sin límite de tiempo.
- Patios escolares: gratis, sin límite de tiempo.

**Tarjeta empresa:**
Se podrá obtener por 30€ y será equivalente a la de “residente” en cuanto al uso o derecho de aparcamiento.

**Tarjeta profesores/as:**
Será equivalente al de “residente” en cuanto al uso o derecho de aparcamiento, pero estará en vigor solamente durante los meses de mayo, junio y septiembre, de lunes a viernes, de 8:00 a 18:00.

**Vecinos/as de Urasamendi:**
Podrán obtener la tarjeta veraneante de manera gratuita, una por vivienda.

**Sector 7:**
Habrá 3 tipos de permisos; por una parte, el de vehículos de “carga y descarga”, por otra, el “permanente” (para las personas con problemas de movilidad o accesibilidad) y, por último, el “puntual” (para las personas que necesiten por una razón puntual). La solicitud del permiso se deberá realizar, como tarde, la víspera, entre las 9:00 y las 13:00, en la oficina de la Policía Municipal o llamando al teléfono 943 60 80 40.



# Itziar Gonzalez Viros: “Hirigintzako benetako adituak herritarrak dira”

**Euskal Kostaldearen Geoparkeak Deban Paleolitoko haranaren museo-proiektu bat garatzea aurreikusita dauka. Proiektu hori Kalbeton Zumarditik bertatik abiatuko litzateke, eta Deba ibaian gora joango litzateke, gorago dauden haitzuloetara. Ekimen horrek, ibilbide horren hasiera Zumardian kokatzen duenez, Udaleko partaidetza batzordeak uste du funtsezkoa dela herritarrei galdetzea; izan ere, Zumardia gune estrategikoa da, auzotarren erabilera handikoa, eta ez litzateke jarduerarik ulertuko Debako jendearen ezagutza eta ekarpenik gabe.**

Beraz, hori da egingo dena. Bide orria egiteko iparrorratz ezin hobea izango du alboan Debako Udalak: Itziar Gonzalez Viros. Bartzelonako arkitekto eta hirigile bat da, eta duela 20 urte herritarren partaidetzako eta hirigintzako prozesuetan espezializatzen hasi zen. “Bartzelonako plaza bateko bizilagunak izan ziren, hain zuzen ere, euren eta administrazioaren arteko bitartekaritza egiten laguntzeko bilatu nindutenak. 2002ko esperientzia hori funtsezkoa izan zen nire etorkizun profesionalaren garapenean, eta gai horietan espezializatu nintzen”, azaldu digu Gonzalezek.

Hiriak behetik gora egiten direla eta hirigintzan benetako adituak herritarrak beraiek direla sinetsita dago; izan ere, “eguneroko bizitzan, hiriaren eta lurraldearen eguneroko erabilerekin, eraldaketak norantz bideratu ulertzen lagun diezagukete hobekien”.

Deban egon da martxoaren hasieran. Berak dioen moduan kasualitateak ekarri du gure herrira, baina bereziki hunkituta dago bere izena duen Itziarren egon izanagatik eta berarentzat berezia den lekua hemendik aurrera pertsona jakinekin lotu ahal izango duelako.

Saio trinkoak egin ditu bertan egon den egunetan, partaidetza batzordearekin bildu da, turismo teknikariekin, Geoparkekoekin, udal arkitektoarekin. Kultura Mahaia osatzen duten erakundeetako ordezkariekin eta guraso elkarteetako ordezkariekin ere egon da. Proposamena haiekin partekatzean, anbizio handiko prozesua zela esan zuten, konplexua, baina ilusionagarria eta, beraz, “nire ustez, erronka bidea elkarrekin egitea da, eta erronka da, halaber, sortzen diren zailtasunek ez gaitzatela geldiarazi eta, besterik gabe, ibilbidea aldatzen edo gauzak moldatzen edo hobetzen lagun diezagutela. Zientziak aurrera egiten du frogarekin eta akatsarekin, eta herritarren parte-hartzeak ere akatsaren froga behar du”, Itziar Gonzalezen iritziz.





## CREAR PUENTES ENTRE LA ADMINISTRACIÓN Y LA CIUDADANÍA

“Este co-diseño pasa porque el personal técnico municipal se implique en realizar el mapa documental, es decir, que organicen y hagan accesibles y comprensibles el mayor número de planos, fotografías y documentación que nos ayude a reflexionar sobre la Alameda. Después van a hacer el mapa de agentes de Deba para poderlos entrevistar y para poder conocer cuáles son los otros temas al margen de la Alameda que preocupan a la gente de Deba y de Itziar. También les vamos a pedir que articulen una plataforma de participación en la página web del ayuntamiento, que podamos subir documentación, que podamos tener un canal de vídeo, que podamos tener conectadas con ese espacio las redes ciudadanas de redes sociales que permita la máxima difusión de los procesos que van a tener lugar”.

Paralelamente a este proceso desde dentro de la administración se van a proponer unos talleres formativos en materia de participación y de urbanismo para que se llegue a poder en los meses de septiembre y octubre hacer unos talleres de discusión sobre la Alameda, sobre cómo intervenir en ella y finalmente qué propuestas hacer.

Después de la primera fase formativa y de preparación de la documentación, se plantea realizar en verano una serie de actividades y conferencias alrededor de los temas que las entidades habrán expresado que les preocupan. “Aunque el proceso participativo sea sobre la Alameda vamos a poder hablar en esas jornadas en verano, de la vivienda, de cualquier cuestión que pueda preocupar a la ciudadanía y por tanto va a ser un precalentamiento a los talleres participativos que se van a dar en septiembre y octubre y a la jornada de deliberación final abierta donde los resultados del taller serán puestos en conocimiento de todo el mundo y en una sesión plenaria se validarán todos aquellos aspectos en los que la mayoría de personas confluyan y lo vean claro”.

Este proceso permitirá también en su transcurso formar en materia de participación a personal técnico del municipio, a ciudadanía y entidades y en concreto “proponemos que haya 6 jóvenes con formación técnica, en arquitectura, ingeniería, medioambiente, aparejadores que pudieran sumarse al equipo y que de forma remunerada fueran quienes dinamizaran los talleres. Lo que queremos es crear una cultura de participación en el propio municipio.”

**“Elkarrizketa trinko horiei esker, pertsona horiekin guztiekin batera 2021ean egiteko asmoa dagoen prozesurako proposamen bat diseinatu ahal izan dugu”.**

El proyecto participativo para la Alameda, crea unas bases para futuros procesos participativos según González: “Básicamente estamos creando las infraestructuras, los cimientos de todo aquello que es necesario para que cualquier persona sienta que puede influir en el futuro de su territorio. Estamos dando las claves y los conocimientos para que cualquier entidad se pueda poner en contacto con otras, se puedan sumar y puedan expresar por los canales de participación que dejaremos construidos una petición a la comisión de participación para que se inicien los debates que se quieran. En realidad estaríamos haciendo una estructura similar a un puente entre la administración y la ciudadanía y podamos ir de un lado al otro y sintamos que la administración nos pertenece a todas y todos y no simplemente al espacio del poder”.



## Memoria berreskuratu eta aitortzarako ariketa Burgosko prozesuaren 50. urteurrenean

Burgosko prozesuaren 50. urteurrenaren testuinguruan hainbat ekimen antolatu ditu Debako Udaleko bizikidetza batzordeak otsailean, garai hartan Euskal Herrian eta Deban bizi izan zen egoera gogorarazi eta herritarrengana hurbiltzeko helburuarekin. Itziar Aizpurua debarrak, Burgosko epaiketan prozesatu zuten herritarretako batek eta Javier Bucesek Arantzadi zientzia elkarteko historialariak mahai-inguruan gogoratu zuten garai hartan bizitakoa. Bestetik, 'Burgosko prozesua, Frankismoari epaiketa' erakusketa egon zen Santa Maria elizan ikusgai.

## Hilerri berriaren irekiera prestatzeko urratsak eman ditu udalbatzak

Artzabalen eraikitzen ari den hilerri berriaren erregimen eta funtzionamendurako araudia onartu zen martxoaren 4an egindako udalbatzaren ez-ohiko osoko bilkuran, EH Bilduren (6 boto) eta Debarren Ahotsaren. (4 boto) aldeko botoekin. EAJ-PNVk (3 boto) kontra bozkatu zuen.

Bertan jasotzen da, besteak beste, instalazioak nolakoak izango diren edota Udalak eta erabiltzaileek bete beharreko arau eta irizpideak. Instalazioei dagokienean, zeremoniak egiteko omenaldien eta agurren gunea, bi beilatoki... izango ditu. Kanpoan, berriz, nitxoak, kolunbarioak, monumentuen gunea...

## Egitarau oparoa Liburuaren egunaren testuinguruan

Apirilaren 21etik 25era bitartean, eta Liburuaren egunaren testuinguruan, liburu aurkezpenak, azoka, literatur lehiaketen sari banaketak... egingo dira. Luzaro Ikastetxeak, Diego Sagredo fundazioak, Debako Ipuin Kontalariek eta Kultur Elkarteak parte hartuko dute Debako Udalarekin batera.

EGITARAUA:

- Apirilaren 21ean, 19:00etan, Kultur Elkartean
  **Eneko Aizpurua Urteagak Tene Mujika bekarekin sortutako 'Bidasoan gora' liburuaren aurkezpena.**
- Apirilaren 22an, 19:00etan, Kultur Elkartean
  **'Deba ehun hitzetan' lehiaketaren sari banaketa.**
- Apirilaren 23an , 19:00etan, Kultur Elkartean
  **Irakurketa Kultur Elkartean.**
- Apirilaren 23an, 19:00etan, Burugorri aretoan (Itziar)
  **Jon Alonsok Tene Mujika bekarekin sortutako 'Naparra kasu irekia' liburuaren aurkezpena.**
- Apirilaren 24an, 19:00etan, Kultur Elkartean
  **Rafa Bravo Arrizabalagaren 'La sombra del aire' liburuaren aurkezpena. Iparragirre saria.**
- Apirilaren 24an, Kultur Elkarteko plazan
  **Liburu azoka.**
- Apirilaren 25ean, 17:00etan, Kultur Elkartean
  **Umeen ipuin lehiaketaren sari banaketa.**





## Las obras de rehabilitación del puente que une Deba y Mutriku comienzan a finales de marzo

El diputado de Cultura de Gipuzkoa, Harkaitz Millán, ha dado a conocer el trabajo en una rueda de prensa realizada el 19 de febrero en Donostia acompañado de los alcaldes de Deba y Mutriku, Gilen Garcia, y Joseba Palenzuela respectivamente. La Diputación prevé que las obras comiencen a finales de marzo y finalicen a finales de año. El alcalde de Deba ha destacado que en esta época de pandemia es una buena noticia para los y las habitantes de ambas localidades porque el puente une su vida cotidiana.

Se va a llevar a cabo un proceso participativo. Se pondrán en marcha un espacio web para la obra, redes sociales propias para compartir novedades, documentación, información, 4 cámaras fijas para el seguimiento de la obra, una carpa caseta informativa a pie de obra para la ciudadanía, conferencia y charlas.

## Hezkuntza, euskararen historia soziala berreskuratzeko hurrengo urratsean

'Debako euskararen historia soziolinguistikoa: hezkuntza' ikerketa gauzatzen ari da HUHEZI.

Badira urte batzuk Debako Udala euskararen historia soziala berreskuratzeko lanean ari dela. Oraingoa, hezkuntzari lotutakoa da eta bertan, ikastolaren sorreraren testuingurua aztertuko da. Protagonistei elkarrizketak egiten ari dira une honetan eta 2023ko udarako amaitzea aurreikusten da.

## Finalizados los trabajos de Errementari-Mogel

En el momento de realizar la urbanización de Mogel, no se realizó ningún trabajo en este tramo. En consecuencia, había que reparar el suelo e iluminar el camino. Y eso es lo que se ha hecho ahora, se ha asfaltado el camino y se ha colocado el alumbrado. Los trabajos de asfaltado han corrido a cargo de la empresa Mularri y el alumbrado ha sido colocado por el personal de la brigada municipal.

Además de la iluminación de Errementari-Mogel, también se han iluminado las escaleras que van hasta Ifar kalea. Las obras comenzaron el 17 de diciembre y finalizaron la semana pasada. Han tenido un coste de 41.000 euros.

## Urte osoan erabili ahal izango dira hondartzako kabinak

Otsailaren erdialdean hasi zituzten hondartzako kabinak berritzeko lanak udaleko brigadako langileek, ur instalazio zaharrak ezeztatzen (eta igeltseritza lan txiki batzuk egiten) eta astebete beranduago hasi zen Tarte enpresa ur instalazio berritze lanekin. Laster amaituko dira lanak, hilabeteko iraupena aurreikusi baita. 18.500 euroko (BEZ gabe) aurrekontua dute.



## Sari bikoitza Tene Mujika Bekan

Batetik, Jon Abrilek emakumeen lanbideei buruzko ikerketa bat egingo du; bestetik, Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek amatasunari eta feminismoari buruzko elkarrizketa-sorta bat landuko dute.

Sari bat ez baizik eta bi emango ditu aurten Tene Mujika sariak. Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolaturiko beka honek. Aurten proiektu ugari eta maila handikoak aurkeztu ziren; horien guztien artean saria bi lani “ex-aequo” ematea erabaki du epai-mahaiak.

ehbildu

## PARTAIDETZA ERE ERDIGUNEAN

Norberak bere bizimodu eta bizipen propioak baditu ere, herritarrok komunitate bat osatzen dugun heinean, badugu zer partekatu, zer eztabaidatu, zer proposatu eta zer erabaki. Hori horrela, 2021erako hainbat prozesu, kanal edo gune martxan jarri edo zabaltzeko asmoa dugu, elkarren artean jarduteko modu berriei bide ematea beharrezkoa iruditzen zaigulako. 2020an GFAko Herritarren Partaidetza saileko bi teknikarirekin lanketa egin genuen Udalbatzako 3 alderdietako eta IAUko zenbait ordezkarik, eta parte-hartzeak duen garrantzia kontua izanik, 2021ean erronka honi aurre egiteko konpromisoa hartu dugu. Pandemiak eragindako egoerak, lanketa hauetarako ere, oztopoak jarriko dituen arren, aparkalekuen gaiarekin hasitako bideari jarraipena eman nahi diogu, herritarren interesekoak diren hainbat gai landuz.

Batetik, Calbeton zumardiaren inguruko lanketa dugu aurreikusita. Gune honek duen kokapena eta garrantzia kontuan izanik, herritarrei hitza emango diegu, honen erabilera edota izaera definitzeko garaian bidelagun izan eta erabakiak elkarrekin hartu nahi ditugulako, merezi duen azterketa, denbora eta garrantzia eskainiz.

Bestetik, etxebizitzen gaia ere landu nahi dugu. Herritarrek etxebizitza eskuratzeko arazoa (esaterako, EAEn etxebizitzen alokairuaren prezioa %31 igo da 2015az geroztik) aspalditik datorren gaia da eta lehenik balorazio orokorra egin nahi dugu, udalerriko egoera islatzen duen erradiografia egin, aurrerantzean zein pauso ematea komeni den aurreikusi eta bide-orria osatzeko asmoz.

Azkenik, 2019ko hauteskundeetarako egin genuen moduan, auzokako bilkurak antolatu nahi ditugu. Gune bakoitzeko auzotarren proposamenak, kezkak eta iritziak jasotzea izango du helburu egitasmo honek.

Herritarren parte-hartzeak emaitza positibo eta esanguratsuak ekarriko dituelakoan gaude, denon artean, elkarlana oinarri, etorkizuneko Deba-Itziar eraikitzen jarraitu behar dugulako.

En la medida en que la ciudadanía formamos una comunidad, debemos compartir, debatir, proponer y decidir sobre diferentes temas. En este sentido, tenemos previsto poner en marcha una serie de procesos, canales o espacios para propiciar nuevas formas de interactuar. Por ello, queremos dar contiunidad al camino iniciado con el tema de los aparcamientos, abordando diferentes temas de interés para la ciudadanía. Por un lado, tenemos previsto trabajar la zona de la Alameda Calbetón. Teniendo en cuenta la ubicación y relevancia de este espacio, vamos a dar la palabra a la ciudadanía, para tomar decisiones conjuntamente a la hora de definir su uso y/o naturaleza. Por otro lado, queremos trabajar el tema de las viviendas. Siendo un tema que viene de hace tiempo, queremos hacer una primera valoración general que refleje la situación del municipio, definiendo una hoja de ruta. Por último, queremos organizar reuniones de barrio en barrio, con el objetivo de recoger las propuestas, inquietudes y opiniones de la vecindad de cada zona.

Creemos que la participación ciudadana traerá resultados positivos y significativos, entre todos y todas debemos seguir construyendo el municipio de Deba-Itziar, basado en la colaboración.

## DEBAKO ETXEBIZITZAREN ETORKIZUNA

Debako etxebizitzaren arazoa behin eta berriz agertzen da, eta are gehiago gaur egungo egoera korapilatsuan. Gai honen inguruan hartuko diren erabakiek, hirigintza mailan herriaren etorkizuna zehazteaz gain, oraindik eta garrantzitsuagoa izango den herri eredua definituko dute. Gainera, gure gazteek eta kolektibo zaurgarrienek emantzipatzeko eta etxebizitza bat lortzeko dituzten aukerak benetan konplexuak dira.

Deigarria egiten zaigu gobernu-taldetik gai hau orain arte agenda politikotik kanpo egon dela. Aurreko legealdian, Elizburu eta Amillaga eremuak garatu ziren, eta 77 babeseko etxebizitzak eraikiko dira, baina hau momentuko irtenbide bat besterik ez da. Osioko plana ere egokitu eta onartu zen, urteak zeramatzan trabatuta, eta bertan 155 babes etxebizitza inguru ezarri ziren. Beraz, plan estrategiko bat prestatzeko eta gai honi aurre egiteko unea dela uste dugu.

Horretarako, uste dugu beharrezkoa dela Udalak jarrera proaktiboa izatea, alokairurako laguntza-programak bultzatuz, etxebizitza hutsak mugituz eta hirigintza-kudeaketaren garapenean erabakiak hartuz.

Erabakiak hartzeko unea eta guztion inplikazioa eskatzen duen gai bat da, eta horregatik Debarren Ahotsatik gai honi erantzuteko lankidetzarako eta ekarpenerako borondatea erakusten dugu.

## FUTURO DE LA VIVIENDA EN DEBA

El problema de la vivienda en Deba es un tema recurrente, y si cabe aún lo es más en la compleja situación en la que nos encontramos ahora. Se trata de un tema estructural que va a marcar no solo el futuro del pueblo a nivel urbanístico, sino lo que es más importante, del modelo de pueblo que podremos tener de aquí a unos años. Además, es un hecho que las opciones que tienen nuestros jóvenes y determinados colectivos vulnerables para poder emanciparse y optar a una vivienda son realmente complejas.

Nos llama la atención que desde el equipo de gobierno este tema ha estado al margen de la agenda política hasta el momento. Ya está aprobado el desarrollo de la zona de Elizburu y de Amillaga, donde se prevén construir 77 viviendas protegidas, pero esto solo supondrá una solución parcial al problema actual. Pensamos que el siguiente paso es Osio, un plan que se adaptó y se aprobó en la legislatura anterior, donde establecimos la construcción del orden de 155 viviendas de protección. Creemos que es momento de encarar este tema y preparar un plan estratégico.

Para ello creemos que es necesaria una actitud proactiva por parte del Ayuntamiento, impulsando los programas de ayudas al alquiler, movilización de vivienda vacía y decisión en el desarrollo de la gestión urbanística.

Desde DA mostramos nuestra voluntad de colaboración y aportación para responder a este tema, que requiere de toma de decisiones y de la implicación de todos/todas.

2021EKO HASIERA

2021erako onartutako aurrekontuetan ez dugu konpromisorik ikusi, ezta etorkizuneko estrategiarik ere proposamenean jasotzen diren ekintza eta proiektuetan.

Egoera zuzentzeko, 5 proposamen aurkeztu genituen:

1.- Behartsuenentzako gizarte-laguntzak indartzea.

2.- Banda Zabalaren hedapena bermatzea Debako landa-ingurunean.

3.- Itziarko industrialdearen garapena sustatzea.

4.- Adinekoentzat egoitza baten proiektua Deban.

5.- Turismoaren eta merkataritzaren garapenerako plan estrategikoa egitea.

Proposamen horietatik, larrialdi-egoeran dauden pertsonentzako laguntzetarako eta elikagaien bankurako, eta Itziarko Auzo Udalak Banda Zabalari dagokionez hartutako konpromisoa soilik jaso dira aurrekontuetan, EAJ-PNVk horren garrantzia estrategikoa azpimarratu ondoren. Alde horretatik, pozik gaude, kontuan hartzen ez ziren ildoak garatzea eragin duela ikusten dugulako.

Gainerakoei dagokienean, inongo aurrekontu partidatan ez islatzeaz gainera, haien kudeadetaren gaineko bermerik ezta borondaterik ere ez zaigu eman.

Proposamen batzuk errepikariak dira, hala nola adinekoentzat egoitza eta Turismoaren eta Merkataritzaren Garapenerako Plana, aurreko urteetako akordioetan ere konprometituak.

Bestalde, hauen negoziazioan, gobernuak ahalegin handiagoa egin du laguntzak bilatzen, hauei zentzu orokorra eta etorkizunekoa ematen baino.

Gure taldearen laguntza lortzeak konpromiso sendoa eta kudeaketa-ahalegina eskatzen zuen. Badirudi Gobernuaren asmoa adostasunik ez bultzatzea izan dela.

Debaren etorkizuna garatzeko lankidetzan jarraitzen dugu. Beste kontu bat da EH Bilduk bere politika eta prebenda guztiak onartzearekin nahastea.

Inoiz ez dugu egin, eta inoiz ez dugu egingo. Garrantzitsutzat jotzen dugun horretan lagunduko dugu, baina gobernuak proposatzen dituenen aurka jarri behar badugu ez dugu zalantzarik izango. Ez genuen ordenantza fiskaletako aldaketekin izan, eta orain ere ez.

Iaz aurrekontuak babestu genituen, Debak behar zituela uste genuelako. Zinegotzi baten liberazioa, eta abstentzioarekin, EH Bildu Udalean gobernatzen aritzea erraztu genuen, Debak nahi zuela uste genuelako.

Bada garaia EH Bilduk duen eginkizuna bere gain hartzeko, errua beste batzuei ez leporatzeko eta bere kudeaketa-arazo larria konpontzeko, Udalak hitzemandako proiektuak aurrera egitea eragozten baitu.

Kanpoan errudunak bilatzea, errealitatetik kanpoko zinismo-ariketa da eta EHBilduren erantzukizuna bere gain ez hartzeko ahaleginak, borondate politikoa eta konpromiso arazo larria erakusten du.

# UDAL GOBERNUAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BIDEAK

## GILEN GARCIA BOYRA

ALKATEA

HIRIGINTZA eta ETXEBIZITZA
HERRITARREN PARTAIDETZA

alkatea@deba.eus

## ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

ALKATEORDEA

OGASUNA, ONDAREA eta KONTUAK
BERDINTASUNA eta POLITIKA FEMINISTA

itziaririzar@deba.eus

## ARITZ LARRAÑAGA UNANUE

ALKATEORDEA

BARNE ERREGIMENA
ONGIZATE POLITIKA
EUSKARA ETA KULTURA (JAIAK)

aritzlarranaga@deba.eus

## ANTXON ETXEBERRIA LARREA

HEZKUNTZA, KIROLA eta GAZTERIA

antxonetxeberria@deba.eus

## NEREA ARRIZABALAGA BADIOLA

EKONOMIAREN SUSTAPENA eta LANDA EREMUAREN GARAPENA (TURISMOA, MERKATARITZA, OSTALARITZA, GEOPARKEA)

nereaarrizabalaga@deba.eus

## ANTXOKA ELORZA ALTUNA

OBRAK, ZERBITZUAK
eta INGURUMENA

antxokaelorza@deba.eus

**Portu kalea, 1**
**+34 943 192 840**
**info@deba.eus**

DEBAKO UDALA

Debako Udala @DebakoUdala Debako Udala

Deba
ETORKIZUNA ORAIN

Deba berri

Debako Udala



Ainitze
Agirrezabala
Aldalur
Deba, 1986

# “Emakumeak kirolean ikustea norbera animatzeko motibazio bat izan daiteke”

Iruleak, Debako emakume pilotarien taldeko kidea da Ainitze Agirrezabala 2011tik, hasieratik. Txapelketak antolatzen orduan hasi baziren ere, 2018ra arte ez zen talde bezala egituratu. Gaur egun 50 emakume inguru ibiltzen dira palan. Herriko beste ekimenetan ere parte hartzen dute, udan hezkuntza-zaintza sarean aritu ziren egoera zaurgarrian dauden haurrekin.

## “Desgraciadamente en el deporte estamos lejos de la igualdad aunque se están dando avances”

**Egoera berezi honetan zer moduz ari zara moldatzen?**
Ba denok bezala, ahal den moduan. Egun batzuk beste batzuk baino hobeto. Hala ere harreman soziala horrenbeste denboraz murriztuta izatea asko ari zait kostatzen.

**Nola hasi zinen taldean?**
Iruleak taldean hasieratik nabil, 2010 urtean Elgoibarren hasi ziren nesken binakako pala txapelketa antolatzen eta hor debar batzuk parte hartu eta gero, Deban ere horrelako zerbait antolatzea polita eta interesgarria izango zela pentsatu genuen eta 2011n antolatu zen lehenengo txapelketa.

**Zer eskaintzen dizu taldeak pilotan aritzeaz harago?**
Adin desberdineko emakumeak elkartzen gara horrek daukan eragin positiboarekin. Horrek ekartzen duen aberastasuna oso handia da eta daukagun giroa ezin hobea da. Palaz aparte ere elkartzen gara zerbait hartu eta noizean behin bazkari edo afaritxo bat egiteko.

**Inportantea da neska gazteek emakumezkoen erreferentziak izatea, baita kirolean ere ezta?**
Zoritxarrez kirolean berdintasuna oso urrun dago nahiz eta gauzak pixkanaka hobetzen doazen. Emakumeak kirolean ikustea norbera animatzeko motibazio bat izan daitekeela uste dut, batez ere txapelketatik kanpokoa bada.

**Nola sortu zen Iruleak?**
Nahiz eta 2011n hasi ginen txapelketak antolatzen 2018ra arte ez genuen elkartea sortu. Beharrak eraginda sortu behar izan genuen elkartea. Frontoia erabiltzeko baimena eskatzeko eta edozer gestio (pala ikastaroak...) egiteko CIFa eskatzen hasi ziren eta horrela elkartea sortu beharra ikusi genuen. Ez bakarrik gestioak egiteko, txapelketan eta palan jokatzeko hasi zen emakume kopuru handiari erantzuna eman ahal izateko ere bai. Gaur egun 50 emakume inguru ibiltzen gara palan.

**Egungo egoerak ez du aukerarik ematen ohi bezalako jarduerak egiteko. Nola eragin dio Iruleaki?**
Ba eragin handia izan du gure ekintza guztiak bertan behera utzi behar izan ditugulako. Aurten 10. binakako txapelketa jokatzea tokatzen zen, zenbaki garrantzitsua guretzat eta zerbait berezia egin nahi genuen, baina dena bertan behera utzi behar izan dugu. Bestalde, hilean behin pala azkarra ere antolatzen dugu eta hori ere egin ezinda geratu gara. Astelehen goizetako pala ikastaroa dago martxan eta federatuta dauden 7 taldekide besterik ez dabiltza txapelketan. Besteok egoera hobetzeko zain gaude.

**Udan egoera zaurgarrian dauden haur-gazteentzat sortu zen hezkutza-zaintza sarean partu hartu zenuten. Nolakoa izan zen esperientzia?**
Ba oso esperientzia polita izan zen. Astebete egon ginen palako kurtsoa ematen eta gustura ibili ginen bai gazteak eta baita gu ere. Horren ondorioz, udarako herriko 6 eta 12 urte bitarteko ume eta gazteentzat pala ikastaroa antolatu eta arrakasta izan zuela uste dut.